

IKUSPEGI
FEMINISTAK EKOIZPEN
ARTISTIKOETAN ETA
ARTEAREN TEORIETAN

III. EDIZIOA

2014

Egilea

MARÍA XOSÉ AGRA ROMERO

Titulua

EMAKUME BORTITZA, USTEKABE?
ARTEARI, FEMINISMOARI ETA
INDARKERIARI BURUZKO APUNTEAK (*)



AZKUNA ZENTROA
ALHÓNDIGA BILBAO

Xabier Arakistainek eta Lourdes Méndezek, *Ikuspegi feministak ekoizpen artistikoetan eta artearen teorietan* aurkezpenaren bidez, «jakintza kritikoa ezagutzera emateko helburua» daukate, ziur baitaude «jakintza feminista, beste jakintza kritiko guztiak bezala, DESEROSOA dela». Bada, hasteko eta behin, zuzen dabiltzala esan nahi dut; deserosoa dela, alegia. Hainbat zentzutan eta modutan da deserosoa, eta horietako batzuk azaltzen saiatuko naiz. Ondorengo lerroetan, beraz, deserosoa den gai batez jardungo naiz: indarkeriaz. Ez digu batere atsegirik sortzen, traba egiten digu eta pentsamendu kritikoa astintzen digu, eta artearen kasuan are gehiago, antza denez edertasunaren erreinuaren irudiarekin konektatzen baikaitu. Hala ere, aurrera dezadan ez dela nire asmoa Indarkeriari eta Edertasunari buruzko eztabaidan murgiltzea. Feminismoarentzat ere deserosoa da gaia, eta interpelatu egiten du; batez ere, hausnarketa horiek mugitzen dutenaren gainean. Emakumeen indarkeriaz ari naiz. Hasieran, gaia orokorrean aztertzen saiatuko naiz, eta, gero, arte-ekoizpenen gaineko apunteak garatzen joango naiz, artearen eta feminismoaren gainean. Gaian sakondu aurretik, sarrera moduan, zehaztapen batzuk egin nahi ditut.

Nire hitzaldiari zer izenburu jarri pentsatzen ari nintzanean, apunte hauen gai nagusia hitz gutxitan adierazteko, burura etorri zitzaidan lehen haxe izan zen: «Indarkeria(k) pentsatu». Izan ere, hori izango zen nire hausnarketen helburua: indarkeria, indarkeria motak, eremu pribatueta eta publikoetako indarkeriak, indarkeria pentsatzeko beharrezana. Hori guztia, Hannah Arendt-ek egindako oinarritzko galdera batetik abiatuta: pentsatzen al dugu egiten duguna? Zehazki, artelan bati dagokionez (koadro bat, olerkia, sinfonia, dantza, eskultura, eleberria, performancea, argazkia...); pentsatze horrek ekintza indibidual eta kolektiboaren eremua inplikatzeko eta konplikatzeko du. Horrela, esperientzia oinarrituta hausnartuz —gure kasuan, arte-ekoizpen eta -praktiketan oinarrituta—, ikusi behar genuke zer den indarkeria(k) pentsatzea, kontuan hartuta, Arendtek (1973) esandakoari jarraiki, indarkeria eta boterea, indarra, potentzia edo agintea ez direla gauza bera. Izenburuak egokia ematen zuen, baina buruari bueltaka nentzen, beste bat bururatu zitzaidan, iradokitzaileagoa, Arakistainek Bilboko Arte Ederren Museoan antolatutako erakusketaren harira: «*Kiss Kiss, Bang Bang. arte eta feminismoaren 45 urte*» (2007). Katalogo horretan, nik neuk parte hartu nuen indarkeriaren inguruan arituz; kasu hartan, emakumeen aurkako indarkeria espezifikoa buruz. Baina orain aztertu nahi dudana gaia ez da «betiereko» maitasuna, ez eta edertasuna eta horren inguruko azpikeriak ere. Kiss Kiss kendu eta Bang Bang jartzea ere banuen, gaia emakumeen indarkeria baita, eta, beraz, «Bang Bang: indarkeria(k) pentsatu» izenburua jar nezakeen; horrela, gainera, indarkeria esparru zabalagoan kokatu ahal izango nuen. Erakusketa horren katalogoa berriro begiratzean, Linda Nochlin-en eta Maura Kelly-ren testua ikusi nuen: «Kiss Kiss gehiagorik ez: XXI. mendeko arte feministari buruzko oharra». Bertan, amaieran, zera diote: «Bukatu da Kiss Kiss hori! Orain bang bang baino ez zaigu geratzen! Kontuz ibili, mutilak. Neska hauek armatuta daude eta arriskutsuak dira!» (2007: 66). Oso originala ez zela jakinik ere, «Bang, Bang: armatuak eta arriskutsuak arte feministan» izenburua askoz ere izenburu hobea iruditzen zitzaidan indarkeriaren eta artisten gaiak lantzeko; alegia, ikuspegi feministatik «armatu eta arriskutsuen» arte-jarduerak eta -ekoizpenak nola islatzen eta ulertzen diren aztertzeko, eragiten dituen galderak kontuan hartuta: zer-nolako armak erabiltzen dituzte eta zergatik dira arriskutsuak? Horrelako galderek hausnarrarazi eta pentsarazi egiten digute: emakume artista feministek nola erabiliko eta adieraziko duten gorputza, nola baliatuko dituzten gorputza eta jariatzen dituen arma gisa, adierazpen artistiko eta politiko iraultzaile, urratzaile eta erasokorrean.

Izenburuaren kontua jada garbi neukala uste nuenean, Remedios Varo-ren koadro baten izenburua topatu nuen, eta aho zabalik utzi ninduen: *Emakume bortitza, ustekabe*. Koadro hori, beste birekin batera, Bartzelonako Galerías Catalonia-ko erakusketa logikofobistan izan zen 1936an. Erreferentzia Victoria Combalia-ren (2006) testuan zegoen jasota. Artelan hura sarean aurkitzen saiatu nintzen, baina ez nuen aurkitzerik lortu; aipamenak baino ez ziren agertzen, inolako erreproduktzio gabe, eta erakusketa horren informazio osagarrikerik ere ez nuen topatu; koadroaren aipamena baino ez. Koadroa ikusteko aukerak aztertzen hasi nintzen, izenburu horrek zer esan edo adierazi nahi zuen argitzeko asmoz. Berri gehiagorik lortu ez nuen arren, nire hitzaldiari Remedios Varok aukeratutako izenburu bera jartzea erabaki nuen, baina galdera-marka jarrita eta azpitutulua erantsita; izan ere, «Emakume bortitza, ustekabe?» izenburuak nahiko ondo erantzuten zien planteatu nahi nituen aztergaiak: batetik, emakume bortitzen salbuespen-egoerari, ustekabeko egoerari buruzko ikuspegi kritikoa jorratzea, akritikoki onartu gabe indarkeria gizonen eremukoa baino ez dela, eta, ondorioz, emakumeak «naturalki» bakezaleak eta baketsuak direla eztabaidatuz; eta, bestetik, emakume artistek indarkeria erabiltzen ote duten eta nola erabiltzen duten aztertzea, bortitzak diren, aktibista/artista feminista diren aldetik egiten dutena pentsatuz¹. Abiapuntua haxe da arte indarkeriari edo indarkeriei

¹ Eskerrak eman nahi dizkiot Lourdes Méndezi, koadroari buruz egindako ikerketengatik. Emaitzarik gabeko zenbait ahalegin egin ondoren, haren ikerketek, azkenean, lortu zuten helburua. Komunikazio pertsonalean, María José González Madrid-ek, *Surrealismo y saberes mágicos en la obra de Remedios Varo* doktorego-tesiaren egileak



hurbiltzeko eta horri aurre egiteko baliatu izan den eta baliatzen den bideetako bat dela; izan ere, giza indarkeriak traba egiten du, nahasi egiten du eta txunditu egiten du; are gehiago emakumeen indarkeriak. Azter dezagun gaia, bada.

I. Deserosoa, nahasgarria

Lehen-lehenik, eta labur-labur, nabarmendu nahi nuke ez dela erraza indarkeriari aurre egitea, indarkeria pentsatzea. Gogorra da. Beharbada horregatik ez dute filosofoek eta politika-arloko teorialariek gogoeta askorik egin gai horren gainean orain gutxi arte, gerraren gainean salbu. Bigarrenik, ez dakigu oso ongi zertaz ari garen indarkeriaz dihardugunean (Birulés, 2007). Zailtasunak izaten dira indarkeria zer den zehazteko, definitzeko, kontzeptualizatzeko edo kalifikatzeko, bai eta tipologiak ezartzeko ere; gainera, haren izaerari buruzko teoria ugari daude (naturala, soziala, kulturala...). Besteak beste horregatik guztiagatik, egokiagoa da indarkeriez hitz egitea, indarkeriaz baino. Dena den, esan daiteke indarkeriaren arazoak ez daukala ezer berezirik, gauza bera gertatzen dela beste hainbat arazorekin, eta teorizazioan sartzen garen bakoitzean gertatzen dela hori. Kontua da indarkeriari aurre egiteak dakartzan zailtasun asko deserosotasunarekin lotuta daudela, hari aurre egitean jarrera bat hartu behar dugulako, dela justifikatzeko, dela kondenatzeko, dela absoltitzeko, dela bultzatzeko (Mayer, 2014; Cardi eta Pruvost, 2012). Indarkerian edo indarkeriatan pentsatzeak deseroso sentiarazten gaitu; traba egiten digu. Eta, era berean, indarkeriaren arazoari zuzenean aurre egiteak nahasmena eragiten du. Eta, nahasmen horren aurrean, hainbat jarrera har daiteke.

Batzuentzat, beharrezkoa da analisi hotza egitea (Žižek, 2008); beste batzuentzat, ordea, Arendtentzat, besteak beste —XX. mendean indarkeriari buruzko hausnarketan salbuespena dena—, kontua ez da «pentsaezina pentsatzeko» odol hotza izatea; izan ere, espezialista zientifikoez ari denean, esaten du ez dutela pentsatzen (1973: 114). Judith Shklar-en ustez, beste parametro batzuetatik, filosofoek ez dute askorik esan krudeltasunaren inguruan, bizio arrunt horren inguruan; eta, beste bizio arrunt batzuk bezala, «guztiok espero dugun jokabide mota bat da: ez da batere deigarria edo ohiz kanpoko»; hori dela eta, ez dago horiek aztertze beharrik, «izan ere, krudeltasunaz esan daitekeen guztia bistakoegia dela pentsatzen dugu» (1990:11). Shklarren ustez, krudeltasuna nahasgarria da eta irrazionaltasunera garamatza; horrela, bada, mehatxu handia da arrazoiarentzat. Bestalde, Arendten ustez, indarkeria kontu publikoetan ez da ez ikaragarria, ez irrazionala, baizik eta arrazionala eta instrumentala. Baina, hala ere, bi autoreek nabarmentzen dute aurre egin behar zaiola, ez odol hotzez, baizik eta historiari kontatzen, narrazioen eta irudimenaren bidez. Ikuspegi horretatik, fikzio literarioak eta irudimenak zeregin garrantzitsua dute kontu publikoetan eta pribatuetan indarkeria pentsarazten laguntzeko orduan; gizakien indarkeria ulertzen laguntzeko orduan. Orain egin beharreko galdera beste hau da: artea oro har ere bide egoki eta beharrezkoa al da? Eta, bereziki, arte feminista? Artisten ekoizpen artistikoez lagun al dezakete eta laguntzen al dute indarkeriaren arazoari aurre egiten eta horren inguruan gogoeta egiten? Bestela esanda, eta hirugarrenik, indarkeria edo indarkeriak sexu-generoak zeharkatzen ditu; beraz, gogoeta egitean eta indarkeria(k) pentsatzean nahitaez sartu behar da sexu-dimentsioa.

Emakumezko artista feministek, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egitean, salatu egin dute, ihes egin dute, azpiko z gora jarri dute, hautsi egin dute feminotasuna. Ez zen zeregin erraza, eta orain ere ez da. Hala ere, gai labainago bat azter genezake; deserosotasuna eta nahasmena areagotzen dituen gai bat, are pentsaezinagoa dena: emakumeek gauzatutako indarkeria. Pentsaezina, deserosoa eta nahasgarria, ez bakarrik indarkeriaren biktimen aurrean jartzen gaituelako —bereziki, bake-sasoietan zein gerretan indarkeriaren biktima diren emakumeen arazoaren aurrean—. Emakumeen aurkako indarkeriaren larritasunak eta jarraitutasunak pentsaraz diezaguke emakumeen indarkeriaz aritzea gai nagusitik aldentzea izango litzatekeela; izan ere, emakume bortitzak, estatistiken arabera, gutxi dira,

(Universitat de Barcelona: <http://diposi.lub.edu/dspace/handle/2445/52044>), esaten du koadroaren izenburua *Accidentalitat de la Dona-Violència* dela, erakusketaren liburuxkan agertzen den bezala, eta ez dakiela gaur egun non dagoen. Inoiz Remedios Varoren wikipedian egon zen arren, orain ez dago bertan eskuragarri, baina bai sareko beste dokumentu batzuetan, bilduma pribatu gisa eta egiletza adierazita. M^o José Gonzálezek dio artelana ez dela xehetasunez ikusten, eta, dirudienez, gizon baten irudia agertzen dela bertan, atal batzuk moztuta dituen emakume baten estatua bati eraso eginez. Informazio baliotsu hori kontuan hartuta —mila esker M^o José Gonzálezeri—, izenburuaren gaztelaniazko itzulpena ez da zuzena (*Accidentalidad de la mujer violenta*); izan ere, *Accidentalidad de la Mujer-Violencia* behar luke (Emakumea-Indarkeria, ustekabe). Izenburu horrek eta koadroaren irudiek ez garamatzate emakume bortitzera, baizik eta indarkeriaren irudikapenera emakume gisa. Eta hori izanez gero koadroak irudikatzen duena, horrek indarkeriaren irudikapenak aztertzea eramango gintuzke, baita sexu-generoaren sistematik ere. Baina horrek, nahiz eta gure aztergaiarekin lotuta egon, orrialde hauen helburua gainditzen du eta, beraz, hurrengo baterako utzi beharko dugu.



salbuespen-kasuak; ustekabeak dira, izenburuak dioen bezala. Hala ere, adierazi nahi dudana da bi indarkeria horiek gizarte eta aldi historiko bakoitzean indarrean dagoen sexu-genero sistemari erantzuten diotela, neurri handi batean. Lehenengo kontua, beraz, salbuespen-egoera hori zertan datzan ikustea da, sinbolizazio-prozesuei eta tradizio-ildo etengabe eta errotuei dagokienez. Garrantzitsua da, halaber, jakitea emakumeek, garai eta testuinguru desberdinetan, indarkeria politikoan eta kriminalean parte hartu dutela eta parte hartzen dutela, eta gauzatu dutela eta gauzatu dutela; horregatik, emakumeen indarkeria agerian utzi behar da, aurre egin behar zaio eta pentsatu egin behar da, sarritan ezkutatu edo baztertu egiten baita (Dauphin eta Farge, 1997; Badinter, 2003; Cardi eta Pruvost, 2012). Alegia, indarkeria pentsatzeko, emakumeen indarkeriaren gainean dagoen tabua apurtu behar da; sexu-generoaren lenteak aplikatu behar dira, eta modu kritikoa onartu behar da, esentzialismorik eta naturalismorik gabe, ekiteko gaitasuna eta erantzukizuna daudela jokoan; askatasuna, alegia. Azken batean, indarkeriak historizatzea, pentsatzea eta sinbolikoki irudikatzea da kontua; ez da abiapuntu gisa hartu behar, besterik gabe, emakumeen bakezaletasun hutsa, bizitzarekiko duten lotura, indarkeriaren inguruan daukaten pasibotasun edo euspena; ez da, oinarri gisa, emakumeak moralaren aldetik nagusi direla ezarri behar, eta utzi egin behar zaio emakumeak soilik biktima edo errugabe gisa ikusteari.

II. Errugabetasuna utzi, gorputza berreskuratu

Salbuespenekoa eta gehiegizkoa; horrelakoa da emakumeen indarkeria mitoen, irudimenaren eta kontakizun historikoen arabera. Feminitate arautua eta emakumeen mendekotasuna betierekotzea dute helburu. Nicole Loraux-ek Greziako munduaz egindako azterketek argi erakusten dute «izaera femeninoak» gehiegikeria dakarrela emakumeen ekintzaren karakterizazioa aztertzen denean, bai eta emakumearen ausardiarekin batera diren arrisku eta akatsak aztertzen direnean ere, polis, politika eta gerrari dagokienez. Oso labur, emakumeen indarkeria zalapartaren inguruan kokatzen da, errebolta, salbuespenaren inguruan, gehiegikeriaren, kitzikaberatasunaren, sentimenduen zeinupean; «amazona bortitz» bihurtzen dira, salbuespeneko gizon-emakume, anomalia edo arau-hauste. Azken batean, «kontrolaezinen zeinua» dute, irudimenean daude, emakumeen «akzioak» izan beharrean «ekintzak» dituzten egoeretan edo, hobeto esanda, «emakumeen ekintzak»; horrek esan nahi du emakumeen indarkeria ez dela arrazionala, ez dela apropos gauzatua eta, beraz, ez duela ezer sortzen, baina askoz ere krudelagoak eta bortitzagoak direla. Dirudienek, zalaparta-, errebolta- edo bihurrialdi-egoeretan soilik hartzen dute parte, ez ekintza- eta iraultza-egoeretan (Loraux, 2004; Ruggiero, 2009). Askotan, ama izaten direlako sartzen dira emakumeak bakezaleen taldean; bizia ematearen aldeko taldean, eta ez bizia kentzearen aldekoan. Baina, aldi berean, amatasun hori bera da emakume horiek hiltzera bultzatuko lituzkeena, mendekatzaile bihurtzen dituen, bortitzago eta krudelago egiten dituen (Bourke, 2008:313). Horregatik da hain pentsaezin eta nahasgarria, ezinezkoa dirudielako bizia ematen duen sexuak bizia kendu, hil eta odola isuri nahi izatea. Medusa eta Medea oso ikono ezagunak ditugu, eta oso erabiliak (Agra, 2012). Tradizioaren ildo sendo eta iraunkorren aurrean, kontakizun eta estereotipoen eraikuntzaren aurrean, gizonen egindako «heroiak» irudikapenaren aurrean (Solana, 2011), artista emakumeen errebolta ekintza artistiko eta politiko, bihurrialdi bilakatzen da, espazioa inbadituz eta «urruntze-aginduak»² hautsiz.

Emakumeen indarkeria, Simone de Beauvoir-ek adierazi zuen bezala, parametro zehatz batzuen kokatu izan da: emakumeek «ez dute indarkeria gauzatzeko baimenik», eta neska gazteei, mutil gazteei ez bezala, ez zaie indarkeria «benetan nolakoa den iraksten»; hori dela eta, emakumeek ez dute beren oldarkortasuna garatzen, ezta botererako grina eta erronkarako nahia ere; aitzitik, oztopatu egiten dira (De Beauvoir, II. bol., 1998:77-78). Ikuspegi horretatik, honelakoak entzuten dira: «Gaiztoak gara, baina gaiztoagoak izan gaitzake», «Zintzoak gara, baina gaiztoagoak izan gaitzake» eta Amelia Valcárcel-en (1980) «gaizkirako eskubide» oldarkorra, polemikoa eta probokatzaila uler daiteke. Gaizkirako eskubideari buruzko eztabaidan sartu gabe, uste dut Collin-en hausnarketetan sakondu behar dugula, emakumeak gaizkia izendatzeko gai izan baitira: «Errugabetasunetik atera dira, pairatzen duten gaizkia aipatu dutelako, baina beraiek egiten duten gaizkia ere aipatu dute, eta, hori egitean, hitza hartu dute» (Collin, 2006:164). Horrela, nabarmentzen du mugimendu feministaren lorpen garrantzitsuenetako bat emakumeen aurkako indarkeria «aipatzea» izan dela, isiltasunetik ateratzea, ohiko bi erregristoren bidez:

² María Reimóndez-ek sortu du adierazpen hori, emakume idazleen inguruan, baina emakume artistei ere aplikatu diezaiekegu: «[...] nik modu ironikoan "urruntze-agindu" izendatzen ditudan isilpeko kanporatze-mekanismoak identifika ditzakegu; estrategia batzuk dira, batzuetan leunak eta beste batzuetan ez hain leunak, idazle emakumei beraien zeregina bigarren mailakoa delako eta/edo espazio publikoan edo nazioa definitzeko espazioan ondo hartuak ez direlako sententzia emateko. Deserriratzeko beharrezkoa da esanahia birsortzeko mekanismoak apurtzeko potentziala gutxitzeko» (2010:72).



justiziaren eta legearen diskurtsoaren bidez, batetik, eta artelanen bidez, bestetik. Errugabetasunetik ateratzean, harreman berri bat sortu da emakumeen eta munduaren artean, arlo sinbolikoaren artean, eta harreman berri horretan «(jasaten edo gauzatzen duen) indarkeriaren larrialdia» antzeman dezakegula dio. Egilea artearen erregistroaz ari da, berariaz, eta, testuinguru horretan, esaten du oso esanguratsua dela «nobela beltzaren irudimenaren garapena, *detective stories*-enak edo narrazio erotiko eta pornografikoarenak»; artea erreplika eta erronka modua dela dio, bakuna eta ezinbestekoa, «itzelezko garrasi eta hartzeen bidez» garai baten amaiera markatzen duena; hemen garrantzi mediatikoagatik aipatutakoak mundu literarioaren ingurukoak dira (Catherine Breillat eta Virginie Despentes). Erronka horiek emakumeek munduarekin duten harreman berrian oinarritzen ditu, «esfera erotikorako emakumeen sarbide aktibo»ren gertakari soziohistorikoan³.

Kontuan hartu gaizkia aipatzeak errugabetasuna uztea dakarrela; gaizkia aipatzeak jasaten den indarkeria azaleratzea dakar, baina baita gauzatzen den indarkeria ere. Garrantzitsua da hori aipatzea. Eta gorputza lehen planora igarotzen da. Ikuspegi horretatik, erreplikak eta erronkak artista emakumeetara ere zabaltzen dira, Collinen hitzetan:

«Gizonezko zein emakumezko behatzaileak harrিতuta geratuko dira, beharbada, ikusten dutenean azken hamarkadotan artista emakumeek eszenaratu dutena eta oraindik ere eszenaratzen dutena beraien gorputza dela, eta ez gizonena; bere gainean egin den irudikapen faltua ordezkatu beharko balute bezala, sekula ikusi izan ez den bezala erakutsi beharko balute bezala: neurri oneko gorputza, zauritua, baina gorputz eutsia, edo ikusteko eta edukitzeko objektuaren gorputz parodiko bezala, beste gorputza bezala. Izan ere, "hau ez da nire gorputza".

Artista emakumeen lehenengo askatasun-keinua duela mende batzuetatik hona (denboraren hasieratik) beraien gorputza erakusten duen hondakindegia publikotik berreskuratzea izango balitz moduan; ez disimulatzeko edo ezkutatzeko, baizik eta erakusteko, kanpoan eta barruan, angelu guztietatik, ikuspen-baldintza desegokian; nagusirik gabeko morrontza. Zalantzarik gabe, gorputza eta denboren arteko sintoniari buruzko lanak dira; ez dira berez emakumeenak, baina gero eta gehiago eskatzen dituzte». (2006:166)

Collinek Gina Pane, Kiki Smith, Ana Mendieta, Orlan eta Nil Yalter-en lanak aipatzen ditu, baina, aurretik, analisi bereziak egin behar direla dio. Ildo beretik, erreplikak eta erronkek kontraeraso eta ofentsibak dakartzate, edo halakoak dira, Linda Nochlinek eta Maura Kellyk esandakoaren arabera:

«Ez dirudi zentzugabea [...] gaur egun emakume artistak kontraerasoan, ofentsiban daudela esatea. Birrintzen ari dira gizon menderatzailearen tradizioa. Uko egiten diote gizonen sexu-gozamenaren inplikazioak onartzeari eta biktima zitalaren eta lehenaldiko biluz klasikoaren ondoriozko dastaketa estetikoaren inplikazioak onartzeari. Gainera, gizonen gorputzaren eta emakumearen gorputzaren irudikapen feministaren inguruko zentzu berriak eraikitzen ari dira —sarritan urratzaileak, batzuetan erasokorrak—» (2007:66).

Gaur egungo artista emakumeek, beraz, ezarritako arauak, edertasun- eta bertute-kanonei, emakumeen gorputzaren irudikapenei botatzen diete erronka eta, horretarako, «gizonen nagusitasunaren inguruko ohiko narratiben alternatiba diren kontra-historiak» sortzen dituzte, iraultzaileak eta urratzaileak dira (2007:66); horrela, errugabetasuna alde batera uzten dute, ez dute defentsarik gabeko biktimen rola hartzea onartzen, desafio egiten dute, autodefendatu egiten dira eta kontraerasoan dabilta. Garrantzitsua da azpimarratzea gorputza erdian dagoela. Baieztatu den bezala, gorputza gatazka-eremu bat da, baina, batez ere, arma bat. Indarkeriari aurre egiteko orduan, ikus dezakegu tresnak, armak, ezinbestekoak direla. Artearen eremuan ere bai. Emakumezko artista feministek iraultzarako, urraketarako, erreboltarako arma gisa erabiltzen dute gorputza, eta horietako askok emakume armatuak irudikatzen dituzte. Hori horrela, egokia da arte-ekoizpenak eta emakumeen gorputzari arma gisa ematen zaion erabilera lotzea indarkeria politikoaren eremu espezifikoan; hor daude,

³ Collinek bigarren gertakari soziohistoriko garrantzitsu bat azpimarratzen du: «ahaidetasunaren mutazioa; zehazki, amatasunarena». Horren ondorioz, goitik behera aldatu da emakumeek munduarekin duten harremana: «Izan ere, zorieko egun batean, bizia eteteke ekimena jendaurrean aldarrikatu zuten, ohituraz bizia eman egiten zutela kontuan hartuta. "Guztiok abortatu dugu" adierazpenak, herrialde bateko lege positiboa ez ezik, aspaldiko Lege sinboliko sakratua ere hausten zuen. Krimen berri bat asmatu zuten; betidanik egiten zen krimen bat. Espazio publikoan beren "askatasun gizagabea"ren indarkeria ezarri zuten. Agintearekin, odolaren isuria eragiten hasi ziren» (2006:166). Ikus M^o José Agra: «Violencia(s): hacer correr la sangre», in Elena Losada eta Katarzyna Paszkiewicz (ed.). (prentsan).



esaterako, bonba suiziden kasua, edo emakume militar torturazaitileen kasua, aurrerago Coco Fuscoren eskutik aipatuko dudan bezala. Era berean, galde genezake emakumezko artista feministak erasokorrak diren; ez ote diren indarkeriaz baliatzen ari maskulinoa eta femeninoa direnaren estereotipoak deseraikitze edo apurtzeko eta irudikapen berriak sortzeko; beraien gorputzean indarkeria baliatuz, ikusleekin erasokorrak izanez, haien konplizitatea bilatzeko, baina, nolana ere, indarkeriaren arazoaren eta arte-modalitate berrien konplexutasunari aurre eginez. Eta honela da, Rosi Braidotti-ren arabera:

«Erronka feminista jarduera artistikoaren eremuan ikusten da ondoen, beste inon baino hobeto. Esate baterako, talde feministen indar ironikoa, ia erreprimitu gabeko indarkeria eta asmamen erregarria, besteak beste istiluko neskena (*Riot Girls*) edo neska gerrillariena (*Guerrilla Girls*), kulturaren gaur egungo birkokapenaren eta irudikapenagatiko borrokaren alderdi garrantzitsua dira. Nik parodiaren politika-baldintzetan zehaztuko nuke posizio hori. Istiluko neskek esan nahi dute gerrak aurrera jarraitzen duela eta emakumeak ez garela baketsuak, gerrillako neskek gaiztoak baikara. Erresistentzia aktiboa ezarri nahi dugu, baina, era berean, ondo pasatu nahi dugu, geure modura». (2004:113)

Zientzia-fikzioa, ziberpunka, gidoi zinematografikoak, fanzineak, rap eta rock musika, eta antzeko beste estilo batzuk jorratzen dituzten emakumeen ugaritasuna ere aipatzen du, eta zera dio:

«Indarkeria-zantzua dago liskarreko eta gerrillako neskek hitz egiteko duten moduan: argitasun gordina, arte estandarren kritikaren tonu sinkopatuarekin topo egiten duena. Estilo sendo horrek ingurunearen eta indar sozialen etsaitasunari erantzuten dio. Era berean, konfiantza sakona du errituen eta erritu bilakatutako ekintzen bidez ezar daitezkeen lotura kolektiboetan; horiek, norbanakoa taldean indargabetu beharrean, berezitasun damugabea nabarmentzen dute.» (2004:114)

Nolana ere, probokatzeko helburua duen indarkeria sinbolikoa da. Braidottik dio arma ironia dela, parodiaren praktika; berak «balitz bezala filosofia» deitzen du. Ikuspegi feministatik, «ez da ukatzeko modu bat, baizik eta esentzializatu gabeko subjektu baten baieztapena, emakume edo giza "natura"ren ideian oinarritzen ez dena, baina, hala ere, ekintza etiko eta moraletarako gai dena» (2004:114). Judith Butler-ekin bat dator esatean parodiak aukera ematen duela «politikoki posizio indartzailea» garatzeko. Erronkak indarkeria sinboliko alaia sortzen du, irria eta ironia uztartzen dituena; eta, beste egile eta artista askok ere baieztatzen dutenez, horiek dira haien armak, eta emakumeen ekintza eta ekoizpen artistiko bihurtzen dira. Ekintza eta ekoizpen horiek borroka kolektiboetan txertatzen dira, baina berezitasun indibiduala alde batera utzi gabe. Nolanahi ere, beti sortzen da indarkeria, eta, hortaz, «emakume armatu arriskutsuak» beti dira alai eta dibertigarri, eta gozarazi egiten digute. Jarduera artistikoen bidez indarkeria gauzatzeko modu batzuek arazoak ekar ditzakete, eta, beraz, hausnartu egin behar dugu egiten dugunaz; edo, Virginia Woolfek dioen moduan eta Lourdes Méndezek (2014) gogoratzen duen moduan, «pentsatu egin behar dugu», arazoak baitaude tartean, eta horiek mugekin eta erantzukizunarekin lotutako konpromiso etiko eta politikoen aurrean jartzen gaituzte. Beharbada, adibide zehatz batek gaiaren konplexutasuna hobeto ulertzen lagunduko digu.



III. Espazioa inbaditzea, errugabetasuna galtzea: Coco Fusco

Collinek «itzelezko garrasi» gisa kalifikatzen zituen garai baten amaiera eta emakumeek munduarekin zeukaten harreman berriaren hasiera markatzen zuten erreplika eta erronketako batzuk. Itzelezko garrasi horietako bat Nochlín eta Kellyren hitzetan adierazita aurki dezakegu:

«Emakume artistek gizonen nagusitasunaren narratiba tradizionalei erronka jotzeko duten modu guztietatik, bereziki harrigarria da *dominatrix* edo mendeko biktimen zigortzaile rol atipikoa hartzea [...], sexu-objektu den gizonetzkoaren eredia, emakumeak subjektu menderatzailearen rola hartzen dueneko» (2007:66)

Ezaguna da 2004an Irakeko gerran publiko egin ziren Abu Ghraibeko espetxeko emakume militar torturatzailen irudiek sortu zuten zalaparta; eragin handia izan zuten komunikabideetan. Asko idatzi da horren inguruan (Agra, 2014) eta, baliteke, hala ere, harrigarria egitea—edo desegokitzat jotzea, besterik gabe—torturaren gai hori, torturatzailen indarkeriarena, artearekin lotzea. Komeni da, bestalde, Mary Louise Pratt-ek esandakoa gogora ekartzea: «*Abanguardia* hitza hiru eremutan erabiltzen da: zientzia militarren, politikaren eta estetikaren lexikoetan. Arrisku-eremua, esperimentazio-eremua eta etorkizun berrietara irekitzeko eremua aipatzen ditu» (2009:25). Mundu militarrek eta arteak familia-antzekotasun handiak dauzkatela esan nahi al du horrek? Argudio hori erabili zuen Coco Fusco New Yorkeko Arte Modernoaren Museoa (MoMA) eginiko 15 minutuko hitzaldian. Hala ere, baziren kezka eragiten zioten beste alderdi batzuk ere; adibidez, galdeketa militarretan teknika gisa sexu-erasoa erabiltzea; Abu Ghraib-en kasuan, galdeketa hori emakumeek egiten zuten, eta, bertan, mendeko biktimen zigortzaile-rolarekin ikus daitezke. «itzelezko garrasiek» nahasmena eta zalaparta eragiten zuen errealitatea erakusten zuten, baina talde feministengan ere.

MoMA museoa «The Feminist Future» izeneko sinposio bat antolatu zuen 2007ko urtarrilean, eta Fusco bertan parte hartzeri gonbidatu zuten. Fusco berak gogoratzen duenez, arte feminista existitzen zela eta arte horrek historia zeukala jendaurrean onartzen zuten lehena izan zen ekitaldi hura, eta, gainera, horrekin lotura zeukaten beste bi erakusketa antolatu ziren garai berean: «Wack! Art and The Feminist Revolution» Los Angelesko Arte Garaikideko Museoa (MoCA) eta «Global Feminisms» Brooklyn Museoa. Ekitaldi horiek eztabaida piztu zuten, bai komunikabideetan, bai Akademian; hala ere, Fuscoren ustez, jada normalizatzen ari zen arte feministaren inguruko ikuspegia ez zetorren bat berak errealitatea ulertzen zuten moduarekin; bi arrazoiengatik, batez ere: lehenengo eta behin, artearen munduak «balio estetikoak eta gustu nagusiak politizatzen dituzten praktika guztien aurkako» izaten jarraitzen zuelako; eta, bestetik, MoMAk eta MoCAk ez zutelako inolako konpromisorik hartu artelan feministak eskuratzeko, nahiz eta horrek, bere ustez, «feminismoaren "balio"ren aintzatespen handiagoa» ekarriko zuen (2008: 93). Testuinguru horretan, Fusco honela aurkeztu zuen bere burua oholtzara igo zenean: «US Army-ko bisitari bat naiz, eta artearen munduko kideei feminismoaren atxikipen estrategikoagatik eta emakumeen erabilera eraginkorragatik zorianak ematera etorri naiz» (2008:93). Horrela, modu parodikoan eta ironikoan, mundu militarren eta artearen arteko ahaidetasuna aipatu zuen, eta, bere esperientzia kontuan hartuta, militarrek sei neurri gomendatu zituen, «emakumeen lorpenak politika feministaren antitetikoa» direla ikusarazteko (2008: 102-104). Atxikipena ez dagokio jada mito, kontakizun eta irudikapenek sortu eta irudikatzen zuten emakumeen «izaera bakezale»ari, baizik eta erronka feministaren atxikipen-mekanismoei, urruntze-aginduei. Merezi du Fuscoren hitz horiek arretaz aztertzea. Haren mezuaren inguruan sakontzera eta eztabaidatzera animatzen zaituztet, tarte honetan ez baitugu horretarako aukerarik izango.

Baina, hala ere, emakumeen indarkeriari buruzko hausnarketan ildotik, aipatzekoa da «Our Feminist Future» sinposioak, aurretik esandakoa berriro gogora ekarri, arrisku- eta esperimentazio-eremua aipatzen zuela, bai etorkizun feminista berrietarako bidea ere. Artistak gerraz eta torturaz ikerketa eta hausnarketa egiteko esparru zabal batean kokatzen zituen, emakumeen eta femeninotasunaren erabilera estrategikoan murgiltzeko. Virginia Woolfi zuzendutako idazki modura egin zuten hori; hura imitatuko zuen pertsonaia bat sortuko zutela adierazi zuten, Shakespearearen arreba izango zena, eta pertsonaia hori «galdetzaile zorrotza» izango zela erabaki zuten, asaldura eragin zioten gai eta gertakariez hitz egin zezan, inolako beldurrik izan gabe feminista askorentzat, "borrokan ari diren ahizpa"



askorentzat, publikoki mintzatzeko zailak diren gaiak ukitzeari; besteak beste, sexu-erasoak, emakumearen sexu-exhibizionismoa edota Abu Ghraibeko eta Guantánamoko galdeketa militarren teknikak. Horretan datza «espazioa emakume batek inbaditzea» deiturikoa (ingelesez, *Invasion of Space by a Female*) (2008:41); adierazpen hori atxilotuei galdeketak egiteko eskuliburu eta praktiketan estandarizatuta dago; baimenduta dagoen taktika bat da. Fuscok, ordea, fikziozko pertsonaia hura asmatu beharrean, nahiago izan zuen zuzeneko ikerketara jo; horregatik, galdeketak egiteko trebakuntza-ikastaroetara joan zen, ulertu nahian nola bihur litekeen pertsona bat horrelako gauzak egiten dituen galdetzaile, eta emakume galdetzaileak ezagutu zituen, zehazki zer egiten zuten ulertzeko. Zuzenean mintzatu zen galdetzaileekin eta entrenatzaileekin, pertsona gisa nolakoak ziren eta beraien lanbidez zuten iritzia jakiteko asmoz (2008:64). Bere esperientziak pentsarazi egiten du, eta horren erakusle da *A Field Guide for Female Interrogators* liburua egiteko hartu zuen erabakia; bertan, emakume galdetzaileak erabiltzen ari ziren sexu-taktikak zehazten zituen, irudiz lagunduta. Liburu hori prestatzeko, atxilotuen eta lekukoen testigantzak baliatu zituen. Gure gaiarekin lotura zuzena duenez, hango zenbait ideia hartuko ditut, ondorio gisa.

Fuscok adierazten zuen feminista askorentzat tabua zela emakumeen indarkeriari aurre egitea edo horri buruz pentsatzea; ihes egiten ziotela ideia horri, edo beldurra ematen ziela. Era berean, esaten zuen gure kulturak ez duela hiztegi politiko zehatzik emakumeak sexu-indarkeriaren —oro har indarkeriaren, esango nuke nik— gauzatzaile autokontziente gisa ulertzeko. Gabezia hori bat dator emakumeen sexualitatea definitzen duen edo emakumeen biktima-izaera historikoak antolatzen dituen ikuspegi mugatuak eskaintzen dituen ahalmen, pribatutasun eta sentiberatasun emozionalaren gaineko konfiantzarekin, hizkuntza moralista batean. Haren esanetan, hirurogeita hamarreko hamarkadatik aurrera, feministak hizkuntza moralista eta zapaltzaile hori apurtzen saiatu dira, eta emakumeen sexu-assertibitatea defendatu dute adierazpen-askatasunaren modu gisa. Eta haien arazo, ez bai eta mugak ezagutzeko, emakume torturatzaileen kasua aztertu du (2008:49-50). Angela Davis-ekin bat etorriz, esaten du generoa eraikuntza soziala denez gero, emakumeek erraz har dezaketela parte, gizonekin batera, ezarritako indarkeria-zirkuituetan (2008: 60). Dioenez, borondatezko indarkeriak modu kontzienteen gauzatzen dituzten emakumeak imajinatzeak egonezina sortzen du, eta, aldi berean, feministen itsutasuna salatzen du, emakumeen indarkeriari aurre ez egiteagatik. Eta, naturaren izenean edo zapalkuntzaren biktima gisa duten esperientziari helduz, emakumeak, indarkeriaren erabilerari dagokionez, estandar etiko altuagoaren eramaile gisa aurkezten dituzten ikuspegien aurka egiten du.

Errugabetasuna uzteak, azken batean, erronka bat dakar: espazioak inbaditzea. Zalantzarik gabe, eta ikusgai egoteko zailtasunak hor dauden arren, arte feminista delakoak asko lagundu du bai emakumeen aurkako indarkeriari dagokionez, bai adierazpen- eta irudikapen-moduetan; zentzu horretan, neurri handi batean, subertsibo eta urratzailea da, tabuak apurtzen ditu, eta, kasu batzuetan, bortitza da edo bortizkeria eragiten du. Errugabetasuna uzteak, era berean, errugabetasuna galtzea esan nahi du, eta emakumeen indarkeriari aurre egitea, ez «ustekabe» bezala, ez eta, besterik gabe, urraketa ospatzen edo arazoa estetizatzen, baizik eta egiten duguna hobeto pentsatzen. Ez dezagun ahaztu indarkeriak lilura eragin dezakeela edo, gehiegikeriaren ondorioz, axolagabekeria eragin dezakeela, gehiegi erakusteagatik. Errugabetasuna galduta, eta indarkerien arazoa beti izan dela eta beti izango dela zail eta konplexua onartuta, ezin dugu alboratu. Ikuspegi horretatik, fikzioa eta irudimen literarioa, arte-ekoizpen feministak bezala, nahasmenaren eta deserosotasunaren kargu egiteko arma onak izan daitezke, eta dira.



© Testu hau Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren FFI2012-33557 ikerketa-proiektuaren esparruan prestatu nuen.

Erreferentzia bibliografikoak

- Agra Romero, M^a Xosé: «Con armas, como armas: la violencia de las mujeres», in *Isegoría. Revista de Filosofía Moral y Política*, urtarrilak-ekaina, 49 (2012), 49-74.
- Agra Romero, M^a Xosé: «Escaping/Transgressing the Feminine: Bodies, Prisons and Weapons of Proximity», in *Historical Social Research*, 39, 3 (2014), 115-134.
- Agra Romero, M^a Xosé: «Violencia(s): hacer correr la sangre» (prentsan), in Elena Losada eta Katarzyna Paszkiewicz (ed.), *Investigar en femenino. Narrativa criminal escrita por mujeres*, Icaria (Mujeres y Culturas bilduma), Bartzelona.
- Arendt, Hannah: «Sobre la violencia», in *Crisis de la República*, Taurus, Madril, 1973; 109. or.
- Birulés, Fina: «Reflexiones sobre vulnerabilidad y violencia», in María Dolores Molas Font (ed.), *Violencia deliberada. Las raíces de la violencia patriarcal*, Icaria, Bartzelona, 2007.
- Badinter, Élisabeth: *Hombres/Mujeres. Cómo salir del camino equivocado*, FCE, Buenos Aires, 2003.
- De Beauvoir, Simone: *El segundo sexo*, II. bol., Cátedra-Feminismos, Madril, 1998.
- Braidotti, Rosi: *Feminismo, diferencia sexual y subjetividad nómada*, edizioa Amalia Fischere-en kargura, Gedisa, Bartzelona, 2004.
- Bourke, Joanna: *Sed de sangre. Historia íntima del combate cuerpo a cuerpo en las guerras del siglo XX*, Crítica, Bartzelona, 2008.
- Cardi, Coline; Pruvost, Geneviève (ed.): *Penser la violence des femmes*, La Découverte, Paris, 2012.
- «Kiss Kiss Bang Bang. Arte eta feminismoaren 45 urte» erakusketaren katalogoa. Xabier Arakistainek antolatua. Bilboko Arte Ederren Museoa, 2007.
- «Heroínas» erakusketaren katalogoa. Guillermo Solanak antolatua. Thyssen-Bonemisza Museoa, Caja Madrid Fundazioa, 2011.
- Collin, Françoise: *Praxis de la diferencia. Liberación y libertad*, Icaria, Bartzelona, 2006.
- Combaila, Victoria: *Amazonas con pincel*, Destino, Bartzelona, 2006.
- Dauphin, Cécile; Farge, Arlette (ed.): *De la violence et des femmes*, Albin Michel, Paris, 1997.
- Fusco, Coco: *A Field Guide for Female Interrogators*, Seven Stories Press, New York, 2008.
- González Madrid, M^a José: *Surrealismo y saberes mágicos en la obra de Remedios Varo*, doktorego-tesia: <http://diposit.ub.edu/dspace/handle/2445/52044>
- Loroux, Nicole: *Las experiencias de Tiresias (lo masculino y lo femenino en el mundo griego)*, Acanalado, Bartzelona, 2004.
- Mayer, Arno J.: *Las Furias. Violencia y terror en las revoluciones francesa y rusa*, Zaragozako Unibertsitateko Argitalpen Zerbitzua, Zaragoza, 2014.
- Méndez, Lourdes: «Feminismos en movimiento en el Estado Español: ¿Re-ampliando el espacio de lo político?», *Revista Andaluza de Antropología*, 6 (2014), 11-30.



Nochlin, Linda; Kelly, Maura: «No más Kiss Kiss: notas sobre el arte feminista en el siglo XXI», aipaturiko katalogoan, 61-67 or.

Pratt, Mary Louise: «Prólogo», in Lucía Rayas Velasco, *Armadas. Un análisis de género desde el cuerpo de las mujeres combatientes*, El Colegio de México, Mexiko, 2009; 17-26 or.

Reimóndez, María: «Extranjera en su patria. El destierro de las escritoras gallegas», in Belén Martín Lucas (ed.), *Violencias (in)visibles. Intervenciones feministas frente a la violencia patriarcal*, Icaria, Bartzelona, 2010; 69-90 or.

Ruggiero, Vincenzo: *La violencia política: un análisis criminológico*, Anthropos, Bartzelona, 2009.

Shklar, Judith: *Vicios ordinarios*, FCE, Mexiko, 1990.

Valcárcel, Amelia: «El derecho al mal», in *El viejo topo*, aparteko alea, 10, 1980.

Žižek, Slavoj: *Sobre la violencia. Seis reflexiones marginales*, Austral, Bartzelona, 2008.

